

IKASLEEN

1. zenbakia

2003ko apirilaren 3a, osteguna

HERNANI INSTITUTUA

"Egun, Txalapartak garrantzia berezia dauka nire bizitzan"

■ Harkaitz Martinez heraniar txalapartari gaztea da. Oreaka TX taldean jotzen du eta Kepa Junkerarekin ere ibilia da.

Maialen Apezetxea-Aiora
Quijano
HERNANI INSTITUTUA

Noiz eta nork bultzatu zintuen txalaparta munduan sartzea?

Orain dela hamaika, hamabi urte izan zen. Heranira parrandan etorri eta kasualidadea txalaparta festa zen. Orduan txalaparta ikusi, eta egia esan ez nuen ia ezagutzen. Gainera nik garai hartan Utikan taldean jotzen nuen, beste musika estilo bat da, guztiz ezberdina. Horrela izan zen, txalaparta ikusi eta ikastarorako apuntatu nintzen. Esan bezela, ez dut izan betidanik txalapartarekiko zaletasuna, hamabost urterekin ezagutu bainuen, baina bai musikarekiko.

Zein alde dago txalapartari norbanakoa izatetik talde bateko partaide izatera?

Alde handiena da orain honetara dedikatzen naizela, lehen denbora librean jotzen nuen goxatzeko. 1993an hasi ginen aurreneko aldiz kalean jotzen, diru horrekin bidaiatzen hasi ginen. San Fermínak ere jotzen pasa genituen eta lortutako diruarekin furgoneta bat erosi genuen eta Irlandara joan ginen. Bertan hilabete aritu ginen kalean joaz. Bueltatu eta txalapartarekin zerbait serioagoa egiteko gogoia piztu zitzaigun. Garai hartan Bilbon majisteritza musikala egin nuen eta hori bukatuta Kepa Junkeraren taldean jotzeko aukera sortu zitzaidan. Lehen ere esan daiteke txalapartaz bizi nintzela, baino beste modu batera. Orain denbora guztia dedi-

katzen diot, egunero aritzen naiz bere inguruan; afinatzen, entsaizten... ez bada jotzen, materiala prestatzen, gauza berriak asmatzen. Orain, jada lanbide bat da.

Zein izan zen zure lehen kontzertua? Noiz?

Aspaldi izan zen, Bexabin. Kontua da garai hartan baten bat atxilotu zutela eta askatu zutenean, honen ongi etorrian jo nuen lehen aldiz jende aurrean. Gero kontzertu kontzertua ez naiz gogoratzen, hainbeste izan dira.

Nolako esperientzia izan da Kepa Junkera eta bere taldearekin munduan zehar ibiltzea?

Ederra. Beste modu batean dedikatzea izan da. Momentu oro zaude talde horri zer eskaini diezaiokezun eta bertatik zer ikasten duzun. Hasiara batean nahiko lan egin behar izan genuen, batez ere txalaparta talde serio batera moldatzeko. Kepak txalaparta melodikoki landu nahi zuen eta orduan kantak moldatzen hasi ginen txalapartaz jo ahal izateko, zeren eta txalapartan ez dago kantarik jotzerik, inprobisazioa baita. Horrekin melodia egiten hasi ginen eta Kepa Junkerarekin asko ikasi dut zentzu horretan, musika mailan.

Zein garrantzi dauka gaur egun txalapartak zure bizitzan?

Handia je, je, je. Keparekin ari ginela disko bat egiteko ideia sortu zen, batez ere oinarrian txalaparta zuena. Orduan Oreaka TX sortu zen, Igor eta biok bikote, gero taldea osatzen joan gara. Orain sei



Harkaitz Martinez Tilosetan.

pertsona gaude eta bi heraniar. Ez dira Keparekin bezain beste kontzertu ateratzen baina mugitu gara. Orain dela ez asko, Eskozian egon gara Oreakekin. Sekula ez ginen atera eta oso arrera ona izan dugu. Hurrengo urtean ere eramango gaituztela esan digute. Egia esan Euskal Heritik dexente atera gara eta beti oso ondo hartu gaituzte.

Ze asmo etorkizunerako?

Laster, Keparekin zuzeneko diskoa grabatzeko asmoa dugu Arriagan. Oreakekin bigarren lan baterako kantak prestatzen ari gara eta zuzenekoan ere pentsatzen. Baina nolabait ere bigarren disko hau orain arte egin duguna-

ren nahiko ezberdina izan daiteke, baina lehenengo diska "perkus"-en perfila mantenduz. Udari begira, batez ere kontzertuak ta nahiko gogorra izango da.

GALDERA MOTZAK

- Kolore bat: granatea
- Liburu bat: 'Los hijos de Ogaiz'
- Abesti bat: 'Ada begi'
- Oporretarako toki bat: Laos (Tailandia)
- Janari bat: entsalada
- Urtaro bat: udaberria
- Izen bat: ez dago izenik
- Musika talde bat: 'Uakti'
- Soinu bat: urarena
- Kirol bat: mendiko eskia

Badator Korrika!

■ Gero bat gaurdanik" da aurtengo leloa. 13 Korriketatik 13 pasa dira Heranitik

Maidar Ansa-Irati Tranche
HERNANI INSTITUTUA

Bihar abiatuko da Korrika Mauletik Iruñara. Gure hizkuntza eta euskaltegi eta gau-eskolak indartzeko egiten den ekitaldia da. 13. edizioa dugu aurtengoa 1980tik bi urtero ospatu baita oztoporen bat tarteko.

KORRIKA Heranin

Euskal Herri osotik ibiliko da eta noski, Heranitik ere pasako da larunbatean, hilaren 6an. Beste urte guztietan ere gure herrian izan dugu Korrika eta antolatzaile-

ek diotenez, egunez nahiz gauez izugarritzko harrera edukitzen du beraiek ere harriturik utziz. Korrika egiteaz gain, diruz ere laguntzen dute heraniarrek. Esaterako ikastolak, auzoak, elkarteak, kultur taldeak, Udaleko taldeak, Institutuak... Arantxa Artola AEK-ko partaideak esan digunez, Heraniko ohorezko kilometroa euskararen alde lan egin dutenei eskaintzen zaie. Orain arteko batzuk Iraulio Pantalone, Juanjo Uribe, Goenkaleko aktoreak eta Langile Ikastola bere 25. urteurrenean izan dira. Aurten Axeri dantza mixtoak eramango du ohorezko kilo-




Korrika 12, Heranin. (Arg. Alberto Elozegi)

metroaren lekukoa.

Urte guzti hauetan xelegekietarako denbora ere egon da. Azken edizioan adibidez, Heraniko arraun elkarteak uretatik eramane zuten lekukoa ia kilometro batean zehar. Heranitik kanpo, Gasteizen jarraitzaile batzuk aerrostatiko batean egin zituzten kilometroak. Arrankudiagan sei tx-

kurrek tiratutako lera batean eta bi gaztek ia ibilbide osoa bete zuten bizikleta gainean. Iñaki Murua bertsolariak korrika egin ondoren furgoneta gainetik bertsotan animatu zituen korrikalariak; Andoni Egañak, berriz, laisterka zijoan bitartean. Karlos Argiñano sukaldariak, ordea, ez zuen lortu erretzarik prestatzerik. □

ZINE KRITIKA



Natasha McElhonen eta George Clooney, aktore printzipalak.

Asteburuko pelikula:

'Solaris'

Mireia Gorrotxategi
HERNANI INSTITUTUA


Asteburu honetan Biteri Kultur Etxean eskainiko den pelikula SOLARIS da, zientzia-fikziozko filme bat, baina azkenaldi honetan egin diren genero horretako filmeekin zerikusi handirik ez duena, akzio eta abenturaren ordean amodiozko istorio bat kontatzen baitu:

Chris Kelvin-ek Gibarian bere lagunaren dei bat jasotzen du laguntza eske Prometheus espaziontzitik. Orduan, Kelvin hara joaten da, bere laguna hilda dagoela eta espaziontziko beste pertsonak geroz eta zentzugabeago jokatzen dutela deskubritzeko. Esaten dutenez, bere bizitzan noizbait egon ziren pertsonak azaltzen zaizkiete lokartzen direnean, bizirik, eta honen arrazoia, dirudienez, Solaris planetan dago, espaziontzia honen orbitan baitago. Laster, Kelvin-i bere emaztea agertuko zaio, orain dela urte batzuk bere burua hil zuena, eta beraientzat bigarren aukera bat eskainiko dio.

Pelikula honen zuzendaria Steven Soderbergh da eta aktoreak George Clooney (Chris Kelvin), Natasha McElhonen (Rheya), Jeremy Davies (Snow), Viola Davis (Helen Gordon) eta Ulrich Tukur (Gibarian) dira besteen artean. Pelikularen gidoia, berriz, Stanislav Lem-en liburuan oinarritua dago.

Steven Soderbergh-ek dioenez, pelikula hau zientzia-fikziozko beste pelikulekin konparatuz gero, dimentsio ezberdin bat duela ikusiko dugu, istorio hau protagonisten adimenean eta oroitzapenetan gertatzen baita, eta beraz, modu ezberdin askotan interpretatu daiteke. Pelikulako aktoreak ere bat datoz zuzendariarekin, eta filmea ezberdina egiten duena lantzen dituen gaiak direla diote, denok larritzen gaituzten gaiak baitira: maitasunaren sekretu eta misterioak, heriotza, heriotzaz geroko bizitza, oroitzapenak, desira,... erantzunik ez duten gaiak. Denborari buruzko iradokizunak ere egiten dizkigu eta bakoitzak erreflexionatzeko aukera ere ematen digu. Guk ezin dugu gehiago esan, orain zuri dagokizu ikustea. Ea zer iruditzen zaizun! □

Euskera -Etxeko Erabilera



Gazteak erabat euskaldunak izateko eskolaz kanpoko ekintzak euskeraz egin behar dituzte

Garazi Etxarri-Oihana Lasarte
HERNANI INSTITUTUA

EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundeak) lau urtetik behin errolda berritzeko datu bilketa egiten du. Honakoak dira azken datuak, eta Hernaniko etxeetan zenbat euskera hitz egiten den aztertzen da. Bi urteak alderatuz (1991-1996) ez dago aldaketa nabarmenik, nahiz eta hizkuntza gaitasunean gora egin dugun, adin talde gazteenetan batez ere. Etxeko erabileran ez da aldaketarik eman, familia buruak ez direlako euskaldundu.

Euskaldundu ez izanaren arrazoiak asko izan daitezke; gogo eza, denbora... Askok seme-alabak ikastolara eramatearekin justifikatzen dute beraien burua.

Gaur egun Hernaniko haur gehienak euskerazko irakaskuntza ereduetan ikasten dute. Egia da hala ere, DBH ondorengo irakaskuntzan hutsune handiak daudela euskeraren aldetik, baina printzipioz derrigorrezko ikasketak euskeraz egiten dituzte. Haur eta gazte hauek askok gaztelera dute ama-hizkuntza eta eskola da, askotan euskeraz hitz egiteko daukaten leku bakarria. Gazte hauek guraso izatera iristen direnean oso garrantzizkoa izango da beraien seme-alabei euskera erakustea eta lehen-hizkuntza izatea.

Beraz, eskola euskalduntzen ari den belaunaldi honi laguntza handiak eman behar zaizkio eskolaz kanpokoak euskeraz egiteko eta gustuz egiteko aukera izan dezaten: aisialdian, kirolean,

zineman, lagunartean... Horrela bakarrik lortuko dutelako euskera beraien seme-alabengana iristea.

Horrela ez bada, belaunaldi honek, guraso bihurtzen denean, seme-alabak D eredura bidaltzen jarraituko du, baina beren etxeko eta familiako hizkuntza gaztelera izaten, eta horrela belaunaldiz belaunaldi, euskera haurren arteko hizkuntza soilik bihurtuz.

Eta gazteak alde batera utzita, beste esparru askotan ere egin behar da lan Hernanin: administrazioan (udaletxean), merkataritza munduan, irakaskuntzan, kirol klubetan, lan-munduan, komunikabide arloan, kulturean... Hernanin euskeraren aldeko giroa sortzea oso inportantea da eta denok hartu behar dugu parte gure hizkuntza den euskera gal ez dadin. □


Bitxikeriak

Eli Rama-Itziar Arruarte - **HERNANI INSTITUTUA**


Hernaniko armariaren deskribapenik zaharrena Lope Martinez de Isasti historiagilearena da, 1625koa.

Honela dio deskribapenik: "Ezaugarri inperialak daramatza arranoaren azpian. Bereziki armari berdea da eta zilarrezko gaztelu bat dauka ate eta lehio urdinez horniturik. Zilarrezko laukitox osatua dago eta urrezko bi lehoi dauka arrapalan eta jarrera zutian."

Badira deskribapen gehiago ere, baina hau da zehatzenetakoa eta lehenengoa gainera. □




Hernaniko armaria.



Pelotariak eta epaileak udal frontoi berriaren inaugurazio-ko ekitaldian, 1951ko ekainaren 17an.

Udal frontoi berriaren inaugurazioa.

Gipuzkoako herri ezberdinetatik etortzen ziren garai haietako pelotariak beren artean indarrak neurtzeko. 52 urteren buruan ere, hernaniar haur eta gazteek bertan igaro ohi dute beren aisialdia. Pelota partiduak gero eta ugariagoak dira gure herrian, eta pelotari kopurua ere asko hazi da azken urte hauetan. Badirudi hernaniarrok gero eta gehiago jotzen dugula pelotarantz, eta gutxiago atzerriko kiroltarantz. □



Axeri dantza (1995eko inauteriak). Soka gaineko dantza uea.

Axeri dantza inauterietan bakarrik izaten zen lehen

Axeri dantza edo maskuridantza, dagoeneko XVIII. mendean dokumentaturik dagoen errikoa da (nahiz eta sumatzen den lehenagokoa dela); hau, berriz, berez inauterietakoa baldin bazen ere, Frankoren carnestolendas-etako debekua zela bide, San Joan festetara aldatu behar izan zen. Gaur egun, berriz, bai inauterietan eta baita San Joanetan ere ikus dezakegu dantza xeble haur. □

Orriaren egileak:



Goien, ezkerretik: Mireia Gorrotxategi, Eli Rama, Itziar Arruarte, Oihana Lasarte. Behean ezkerretik: Jone Egaña (irakasle-arduraduna), Maider Ansa, Maialen Apeztxea, Aiora Quijano, Garazi Etxarri eta Irati Tranche.